

DATORREN ASTEAN EGUN GUZTIETAN EGONGO GARA ZABALIK

Datorren astean **egun guztietan** egongo dira zabalik gure lurraldeko lau egoitzak. Egun guztietan esaten dugu, abenduaren 6an (*Konstituzio* eguna) eta 8an (*Inmaculada* eguna) ere lanean egongo garelako, ordutegi bereziarekin bada ere: goizeko 10:00etatik 13:00ra. Asteko beste egunetan (5ean, 7an eta 9an) goizeko ordutegi arruntarekin atendituko zaitugu (9:00etatik 14:00etara). Arratsaldeetan egoitzak itxita egongo dira.

Aspalditik salatu izan dugu lan-egutegiarekin daukagun desadostasuna, batik bat gustukoak ez ditugun bi motatako jaiegunak inposatzen dizkigulako: erlijioarekin zerikusia dutenak (estatu laiko batean ulertezinak) eta alde bateko irizpide politiko batzuen eskutik datozkigunak, askotan herri honen borondatearen kontra inposatuak, Konstituzio egunarekin gertatzen den bezala. Aurten EAEn Estatuto eguna ezartzea izan da azkena.

Hori saltzeko urrats txiki bat eman nahi izan dugu aurten erabaki sinboliko honekin. Datorren astean behar izenez gero lau egoitzetan izango gaituzu.

Agur bero bat.

STEE-EILAS